ta gogotsuago irakurri daien artu dot ipuin bat egiteko lanbide ta asmoa.

Ara emen nire *Kresala.* Ikusi egizue gura dozuenok. Bertan agertuko diran gizon da emakumeak eztira neure irudimenak asmau dituanak: oso itsua ezpanago ta amesetan ezpanabill, bizi-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez; neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozeñ itsaserritan ikusi daikez. Euren alkarren arteko jarduna bere guztiz da egiazkoa, gatzgaran andiak kenduko deutsadaz baña. Nai ta naiezkoa da, zerren Tramanak eta Brisek oituten daben izketea bapere gozatu barik ipiñi ezkero, irudi obeak egingo nituke bear bada, baña gaziegiak, eta gauza gaziegiak eztagoz beñbere ondo.

Beste gauza bat. Danok dakigu iru eratako izketea egiten deutsagula euskaldunok alkarri: *i-gaz* esaten dana lenengoa, *zu-gaz* esaten dana bigarrena ta irugarrena berori-gazkoa, Lenengoaren zalea naz, zarrena dalako, ta opa dot bere bizitza luzea; baña antziña iltzan Arranondon da orregaitik ezta emen agertuko iketa zar ori.

DOMINGO AGIRRE-KOAK.

(Aurrandetuko da)

MÚSICA EUSKARA

El tamborilero de esta ciudad don Eusebio Basurco ha remitido al Ayuntamiento el cuaderno número 13 de música bascongada, compuesta para silbos y silbote, que comprende las siguientes composiciones:

Dos zortzikos de 5 por 8, dos zortzikos de 2 por 4, dos valses, dos contradanzas y un pasa-calle.

Hasta la fecha lleva presentadas al Ayuntamiento dicho músico juglar 134 composiciones entre arreglos y originales.